

## 1. BEZERO SEGMENTUAK:

Gure proiektuak bezero segmentu ugaria edukiko du dibertsitate askorekin. Guk ez baitugu inungo estereotiporik ezartzen gure hostelan ezta diskriminatzen inungo motako jendeari. Hortaz, gure proiektuko hostela edozein pertsona egoteko espazio libre bat izango da, hau da, beste lokal, jatetxe eta ostalaritzako leku batzuk dituzten sartzeko baldintzak alde batera utziko ditugu.

Bezero nagusiak familiak eta maskota duten jendea izango da, beraientzat eskaintza aproposa baita umeak edo animaliak hostelean uztea. Horrela, bidaiaren onurak aprobetxatu ditzazkete inungo oztoporik edo kargarik gabe eta era berean, leku seguru baten daude lasai egon daitezzen edo jolasteko. Hori guztia gela intsonorizatu batean egingo da, bertan ostatutako pertsonak ez molestatzeko.

Alde batetik, familiak lehen aipatu bezala, beren bidaietaz gozatu dezakete inungo kezkarik eduki gabe beraien umeak edo maskotak leku eroso eta egoki baten utziz. Bestetik, umeak eta maskotak, bakoitzak bere gela espezializatu bat edukiko du eta beste umeekin/maskotekin sozializatu dezakete, lasai egon edo siesta bat bota gurasoak/jabeak bueltatu arte.



